**XX DEKRETUA, 20XXeko XXXXXXXXkoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Aiako Harria (ES2120016) Kontserbazio Eremu Berezi izendatu eta hura babesteko neurriak ezartzekoa**

Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko Akordioen bidez, 6 gune deklaratu ziren Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izateko (HBBG), eta 52 leku proposatu ziren Europar Batasunaren Intereseko Leku (EBIL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark Europar Batasunaren Intereseko Lekuen (EBIL) zerrenda onartu zuen 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Lehenengoa eskualde biogeografiko atlantikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eskualde biogeografiko mediterraneoari; eta bi horien barne dago gure erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri aurretik, beren lurraldean Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) guztiak Kontserbazio Eremu Berezi (KEB) deklaratuko dituzte, bai eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) guztiak ere. Horrez gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurriek kudeaketa-planak edo kudeaketa-bitartekoak hartuko dituzte, bai eta arauzko, administrazioko edo kontratuko neurriak ere. Kontserbazio Eremu Bereziak (KEB) izendatzeko epea 6 urtekoa da, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik kontatzen hasita.

**DECRETO XX, de XXXXXXXX de 20XX, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por el que se designa la Zona Especial de Conservación de Aiako Harria (ES2120016) y se aprueban sus medidas de conservación**

Mediante los Acuerdos de Consejo de Gobierno de 23 de diciembre de 1997, 28 de noviembre de 2000 y 10 de Junio de 2003, se declararon 6 Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) y se propusieron 52 espacios para ser designados como Lugares de Importancia Comunitaria (LIC). Esta propuesta se elevó a la Comisión Europea, que aprobó la Lista de Lugares de Importancia Comunitaria (LIC) mediante las Decisiones 2004/813/CE y 2006/613/CE, correspondientes a las regiones biogeográficas atlántica y mediterránea respectivamente, a las cuales pertenece nuestra Comunidad Autónoma.

Conforme a lo establecido en el artículo 4 de Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres, y en los artículos 44 y 45 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, las Comunidades Autónomas, previo procedimiento de información pública, declararán todos los LIC como Zonas Especiales de Conservación (ZEC), además de las Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) en su ámbito territorial, y fijarán las medidas de conservación necesarias, que respondan a las exigencias ecológicas de los tipos de hábitats naturales y de las especies presentes en tales áreas. Las medidas de conservación implicarán planes o instrumentos de gestión y medidas reglamentarias, administrativas o contractuales. La designación de las Zonas Especiales de Conservación (ZEC) se deberá realizar en un plazo de 6 años desde la adopción de la lista de lugares por la Comisión Europea.

EAEko Natura 2000 Sareko Aiako Harria (ES2120016) izeneko espazioan EBren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Horregatik izendatu zen Natura 2000 leku.

El espacio integrante de la Red Natura 2000 de la CAPV denominado Aiako Harria (ES2120016) alberga hábitats y especies de interés comunitario, incluidos en los Anexos I y II de la Directiva 92/43/CEE, de Hábitat, y especies de aves del Anexo I de la 2009/147/CE relativa a la conservación de las aves silvestres. Por esta razón fue designado lugar Natura 2000

Aiako Harria mendigunea da; zati handi bat basoz estalita dago eta artzaintzan aritzeko prestatutako zelaiguneak ere badira, eta harkaitz-irtengune asko. Pagadi azidofiloak eta harizti helduak ugari dira eta, horien kontserbazio-egoerari esker, interes komunitarioa duen baso-fauna ikus daiteke; batzuk nabarmentzekotan, saguzar multzoak eta ornogabe saproxilikoak aipatu behar dira, galzorian baitira. Inguru garaietan larre eta sastrakak daude, eta tarteka esfagnaleak eta bestelako landare interesgarriak ere agertzen dira. Harkaiztegietan harri silizeotako flora kasmofita ikusten da; flora espezie hori oso bakana da Europan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Floran, halaber, interes handiko hainbat espezie daude, aipagarriena *Soldanella villosa*, oso esparru murritzeko endemismoa.

Aiako Harria es un macizo montañoso en buena parte cubierto por bosques con rasos destinados al pastoreo y con frecuentes resaltes rocosos. Tiene buenas representaciones de hayedos acidófilos y robledales maduros cuyo estado de conservación permite la presencia de fauna forestal de interés comunitario, entre los que caben destacar los grupos de los murciélagos y de los invertebrados saproxílicos amenazados. En las zonas altas se localizan pastos y matorrales, con enclaves puntuales de esfagnales y otras plantas de interés. Los afloramientos rocosos acogen flora casmófita de roquedos silíceos, sumamente rara en el ámbito europeo y en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Entre la flora se encuentran diversas especies de notable interés siendo la más representativa *Soldanella villosa*, endemismo de área muy restringida.

Halaber, badira kalitate handiko ur-bazterreko basoak, non urarekin lotutako fauna oso nabarmena den: izokinaren errunaldirako (*Salmo salar*) eremuak daude, muturluze piriniarrak (*Galemys pyrenaicus*) ageri diren guneak, eta bisoi europarra (*Mustela lutreola*) finkatzeko eremu egokiak ere bai.

Existen también bosques de ribera de alta calidad donde la fauna ligada al agua tiene una notable importancia, con zonas de freza del salmón (*Salmo salar*), poblaciones de desmán ibérico (*Galemys pyrenaicus*) y áreas adecuadas para el asentamiento del visón europeo (*Mustela lutreola*).

92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Eremu Berezi izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu da gune hori, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen kokalekua. Horrez gain, Aiako Harriako fauna- eta flora-espezie

Para dar cumplimiento a los requerimientos de la Directiva 92/43/CEE en lo relativo a la designación de las Zonas Especiales de Conservación, se ha profundizado en el estudio de este espacio y se ha representado a escala adecuada la distribución de los hábitats de interés comunitario y otros hábitats de interés regional. Asimismo, se

bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

ha trabajado en el estudio de la distribución y del estado de conservación de las especies de fauna y flora características de Aiako Harria.

Aztertuta espazioaren egungo egoera, haren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak eta kontserbazioan eragiten duten giza erabilerak, horren ondoren, lekua kudeatzeko giltzarriak diren elementuak hautatzen dira, eta horiek izango dira, gero, helburuen eta neurrien proposamenen oinarri nagusia. Kudeaketa-xede diren elementu giltzarri esaten zaie, eta horien kontserbazio-egoera deskribatzeaz gain, zenbait helburu eta neurri zehazten dira, batetik, bermatzeko egoera onean kontserbatuko direla, eta, bestetik, lekuaren osotasun ekologikoa kontserbatuko dela, hori baita Habitatak Zuzentarauak ezarritako helburu nagusia.

A partir del análisis de la situación actual en la que se encuentran este espacio: sus características físicas y ecológicas y los usos humanos con incidencia en la conservación, se eleccionan aquellos elementos que se consideran claves para la gestión de lugar y que son la base fundamental de las propuestas de objetivos y medidas. Para estos elementos denominados elementos clave objeto de gestión, se describe su estado de conservación y se definen objetivos y medidas que permitan asegurar, tanto su conservación en un estado favorable, como la integridad ecológica del lugar, objetivo principal que establece la Directiva Hábitats.

Elementu giltzarri horietarako zehaztutako neurriak beste habitat natural eta flora- eta fauna-espezie batzuen kontserbazio ona lortzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, aurreko elementuekin batera Aiako Harria ere Kontserbazio Eremu Berezi izendatzeko arrazoi izan dira, kontserbatu beharrekoak dira eta horrexegatik babes bereziko habitat eta espezietzat jo dira.

Las medidas definidas para estos elementos clave servirán igualmente para mantener o alcanzar un estado favorable de conservación en el caso de los otros hábitats naturales y especies de flora y fauna que, habiendo sido igualmente motivo para la designación de Aiako Harria como Zona Especial de Conservación, son considerados hábitats y especies en régimen de protección especial.

Xehetasun-lanek aukera eman dute habitat moten informazio zientifikoa hobetzeko; baina horietan adierazitako azalera-datuetan, zenbaitetan, alde handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak, proposatutako tokien zerrendarekin batera, Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen aldean. Hasierako proposamena egiterakoan lanerako erabili zen eskalak eragin ditu desberdintasun horiek. Xehetasun-azterketan, gainera, ikusi da bazirela Europar Batasunaren intereseko espezieak hasierako proposamenean aipatu ez zirenak.

Los trabajos de detalle han permitido mejorar la información científica y arrojado datos de superficie de los tipos de hábitats que en algunos casos difieren de los datos consignados y comunicados a la Comisión Europea junto con la propuesta de la lista de lugares de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estas diferencias obedecen a la escala de trabajo utilizada en el momento de elaborar la propuesta inicial. El estudio en detalle ha permitido además constatar la presencia de especies de interés comunitario que no se habían citado en la propuesta inicial.

Kontserbazio-neurriak zehazteko hainbat lan egin dira eta, horren harira, informazio

Los trabajos realizados para la definición de las medidas de conservación han permitido

gehiago pilatu da. Informazio horren arabera, ezinbestekoa da habitat natural batzuen eta interes komunitarioa daukaten hainbat espezieren agerpena ugaritzeko espazioak zabaltzea. Hala, Europako Batzordera igorritako mugen alboan lekutzen diren Landarbaso (Donostia), Usoko erreka (Hernani), Galtzadeta (Oiartzun) eta Atsegiñarri (Irun) esparruak hedatuta, EAEko ekosistema adierazgarrienetakoa agertzeko modua emango du, basoetako harizti azidofilo mistoak, hain zuzen; eta EBrako intereseko diren zenbait habitat hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko lekuen zerrendari dagokion proposamenarekin batera . Horren adibide dira, uztarako larre baxuak (kod. 6510), txilardiak (kod. 4030) eta, bereziki, haltzadiak (kod. 91E0*). Habitat horiek lehentasuna dute, kontserbazio pattala baitute, Euskal Herri osoan.

obtener nueva información en virtud de la cual se considera necesaria la ampliación del espacio para mejorar la representatividad de algunos hábitats naturales y de especies de interés comunitario. De esta manera, la ampliación en las áreas de Landarbaso (Donostia), Usoko erreka (Hernani), Galtzadeta (Oiartzun) y Atsegiñarri (Irun), contiguas a los límites remitidos a la Comisión Europea junto con la propuesta de la lista de lugares de la Comunidad Autónoma del País Vasco, permite la mejora de la representación de uno de los ecosistemas más representativos de la CAPV, los robledales acidófilos-bosque mixtos, y de algunos hábitats de interés comunitario, como los prados bajos de siega (cod. 6510), los brezales (cod. 4030), y especialmente de las alisedas (cod.91E0*), hábitat prioritario cuyo estado de conservación es desfavorable en el conjunto del País Vasco.

Halaber, urtegi bat ere gehituko litzateke, ur eutrofiko iraunkorretan ur-azpiko eta ur-azaleko landaredia duena. Urtegiak, jatorriz artifiziala izan arren, hainbat landare-komunitate ditu, interes komunitarioko “Landaredia Magnopotamion edo Hydrocharition izenekoa gordetzen duen laku eutrofiko natural” (Kod. 3150) delako habitatean sailkatuta daudenak, naturalizazio handia duelako.

Supone igualmente la inclusión de un embalse con vegetación acuática sumergida y flotante en aguas eutróficas permanentes que, a pesar de su origen artificial, alberga comunidades vegetales incluidas en el hábitat de interés comuinitario denominádo como “Lagos eutróficos naturales con vegetación Magnopotamion o Hydrocharition” (Cod. 3150), gracias a su avanzado grado de naturalización.

Hedatu nahi diren esparru horietako batzuetan, Garrantzi Komunitarioko Leku mugatzeko hasierako proposamena zehaztu ostean, *Trichomanes speciosum*, *Soldanella villosa* eta *Hymenophyllum tunbrigense* landare-populazioak aurkitu dira. Horiek guztiak Habitat Zuzentarauko II. eta IV. eranskinetan sartuta daude. Horrez gainera, esparru horietan muturluze piriniarraren (*Galemys pyrenaicus*) eta bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) populazio batzuk, edo beren biziraupenerako egokiak diren habitatak daude. Aipaturiko bi espezieak II. eranskinean agertzen dira.

En algunas de estas áreas objeto de la ampliación se han localizado, con posterioridad a que se definiera la propuesta inicial de delimitación de Lugares de Importancia Comunitaria, poblaciones de las plantas *Trichomanes speciosum, Soldanella villosa* e *Hymenophyllum tunbrigense*, todas ellas incluidas en el anexo II y IV de la Directiva Hábitat. Estas áreas incluyen además poblaciones o hábitats adecuados para el desmán pirenaico (*Galemys pyrenaicus*) y el visón europeo (*Mustela lutreola*), ambos del anexo II.

Orobat, mugaketa berri horren barnean,

Se corrigen igualmente, con esta nueva

eskala doituta, Aiako Harriaren (ES2120016) KZB eta Urumea ibaiaren (ES2120015) KZB artean agertzen diren irlatxo eta pilaketa batzuen kokapena zuzentzen da, eta, hala, Natura Sarea 2000 delakoaren jarraikortasuna eta koherentzia hobetzen da.

delimitación, mediante un ajuste de escala, la aparición de islotes y solapamientos entre la ZEC de Aiako Harria (ES2120016) y la ZEC del río Urumea (ES2120015), mejorando la continuidad y coherencia de la Red Natura 2000.

Aiako Harria KZB delakoaren mugaketa berriaren ostean, 594 hektarea gehiago izango ditu eremuak; bestela esanda, hasierako azaleraren aldean % 9 handitu da: 6.778 hektarea zituen lehen eta 7.372 hektarea ditu orain.

La nueva delimitación de la ZEC Aiako Harria supone un aumento de 594 hectáreas, o lo que es lo mismo, del 9% de la superficie inicial, pasando por tanto de las 6.778 a las 7372 hectáreas.

Gaur egungo mugaketa, lan-eskala bera eta neurrien agiria prestatzen hartutako jakintza zientifikoa hobetzearen ondorioz etorri dena, Europako Batzordera igorriko da, han baliozko egin dezaten.

La delimitación actualizada, fruto de una mejora de la escala de trabajo y de los conocimientos científicos obtenidos en la propia elaboración del documento de medidas, se enviará a la Comisión Europea a efectos de su validación.

Kontserbazio Eremu Berezien izendapenerako prozeduran, ondo bete da parte-hartzearen prozesua, nahitaezkoa izanik, eta uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraiki (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Izapide-epeak iraun bitartean zabalik egon dira parte hartzeko jarritako bide guztiak. Horretarako, interesa zuten herritarrei komunikazioak helarazi zaizkie eta, bestalde, propio prestatu genuen web-orri hau: *http://www.euskadi.net/natura2000*.

El procedimiento para la designación de la Zona Especial de Conservación Aiako Harria ha incluido el necesario proceso de participación, conforme a los principios de la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente. En este proceso han tomado parte diferentes agentes representativos de los interés sociales y económicos. Los canales para la participación se han mantenido abiertos a lo largo de la tramitación mediante comunicaciones al público interesado y a través de la página Web habilitada al efecto: *http://www.euskadi.net/natura2000*.

Aiako Harriaren kontserbazio-neurriak egiteko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, 92/43/EEE Zuzentarauan adierazten diren habitaten eta taxonen premia ekologikoei erantzuna ematea baita helburua. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betez, KEB bakoitzarentzat berariazko kudeaketa-tresna bat sortzea erabaki da. Dekretu

Las medidas de conservación de Aiako Harria se han elaborado siguiendo los principios emanados de la Comisión Europea, con el objeto de dar respuesta a las exigencias ecológicas de los hábitats y taxones recogidos en la Directiva 92/43/CEE y presentes en el lugar. De acuerdo a lo establecido en el artículo 45 de la Ley 42/2007, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, se ha optado por la

honen eranskinean arau-izaerako kontserbazio-neurriak bildu ditugu, eta kudeaketa-tresnaren gainerako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean ingurumenaren alorrean eskumena duen sailaren helbide elektronikoan dago eskuragarri.

elaboración de instrumentos de gestión específicos para cada ZEC. En el Anexo a este Decreto figuran las medidas de conservación de carácter normativo, quedando el resto de la documentación del instrumento de gestión disponible en la sede electrónica del Departamento competente en materia de medio ambiente de la Administración General del País Vasco.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2.f artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontserbazio-neurriek lehentasuna dute lurralde- eta hiri-antolamenduan ezarritako neurrien aldean.

Conforme a lo que se establece en el artículo 2.f de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, las medidas de conservación prevalecerán sobre lo dispuesto en la ordenación territorial y urbanística.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ematea eta finkatzea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Corresponde al Gobierno Vasco la designación y el establecimiento de las medidas conservación, de conformidad con lo establecido en el artículo 44 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

Horrenbestez, Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak proposatuta, eta 2010eko XXXaren Xan izandako bilkuran Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, honakoa

En su virtud, de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y de los artículos 44 y 45.1 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Política Territorial, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día X de XXX de 2010,

**XEDATZEN DUT**

**DISPONGO**

### 1. artikulua. Helburua eta lurralde-eremua

### Artículo 1. Objeto y ámbito territorial

1. Aiako Harria (ES2120016) Kontserbazio Eremu Berezi izendatzea, Gipuzkoako lurralde historikoan.

1. Declarar como Zona Especial de Conservación Aiako Harria (ES2120016), dentro del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Kontserbazio Eremu Berezi horren mugaketa dekretu honen eranskinean dago jasota. Eranskin horretan, deklaratzen den Kontserbazio Eremu Berezi horren bi mugaketa adierazten dira: batetik,

2. La delimitación de la Zona Especial de Conservación es la que se recoge en el Anexo a este Decreto. En dicho anexo se identifica, para la Zona Especial de Conservación que se declara, la delimitación

Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiari (eskualde biogeografiko atlantikoan Europar Batasunaren Intereseko Lekuen zerrenda onartzekoari) dagokion mugaketa, eta, bestetik, Europako batzordeari bidaltzen zaion handitze eta eguneratzeari dagokiona.

correspondiente a la Decisión 2004/813/CE de la Comisión Europea, de aprobación de la Lista de Lugares de Importancia Comunitaria de la Región Biogeográfica Atlántica y, la correspondiente a la ampliación y actualización de las mismas que se envía a la Comisión Europea.

3. Aiako Harria Kontserbazio Eremu Bereziaren (KEB) kontserbazio-neurriak onartzea.

3. Aprobar las medidas de conservación de la citada Zona Especial de Conservación (ZEC) Aiako Harria.

**2.artikulua. Xedea**

1. Arau honen xedea hau da: Kontserbazio Eremu Berezian (KEB) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak lehenera ekarriko direla edo, ondo kontserbatuta, horiei eutsiko zaiela. Horiek Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan ezarrita daude, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoa da. Horrez gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2. Kontserbazio Eremu Berezian araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentarauan eta 2009/147/EE Zuzentarauan ezarritakoa, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa.

**Artículo 2. Finalidad**

1. La finalidad de esta norma es garantizar en la Zona Especial de Conservación (ZEC), el mantenimiento o el restablecimiento, en un estado de conservación favorable, de los tipos de hábitats naturales y de los hábitats de las especies silvestres de la fauna y de la flora de interés comunitario, establecidos en la Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres. Asimismo, tiene por objeto asegurar la supervivencia y reproducción en su área de distribución de las especies de aves, en particular las incluidas en el anexo I de la Directiva 2009/147/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 30 de noviembre de 2009 relativa a la conservación de las aves silvestres, y de las especies migratorias no contempladas en dicho anexo cuya llegada sea regular, todo ello con el objeto último de contribuir a garantizar la conservación de la biodiversidad en el territorio europeo.

2. En la Zona Especial de Conservación es de aplicación el régimen general establecido en las Directivas 92/43/CEE y 2009/147/CE, y en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

**3.artikulua. Kontserbazio-neurriak**

1. Dekretu honen helburu den eta Natura 2000 Sarea osatzen du Aiako Harria eremua

**Artículo 3. Medidas de conservación**

1. Las medidas de conservación para el espacio integrante de la Red Natura 2000

kontserbatzeko neurriak dokumentu hauetan zehazten dira:

a. Diagnostikoaren agiria
b. Helburuen eta neurrien agiria.
c. Kartografia
    c.1. Mugaketa
    c.2. Habitat naturalak
    c.3. Zonakatzea

d. Gehigarriak
    1. gehigarria. Kontserbatu nahi diren habitat- eta espezie moten kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko fitxak.

    2. gehigarria. Parte-hartze prozesuari buruzko dokumentazioa

2. Arau-izaerako xedapenak dira honako hauek: b. paragrafoa; c.1 paragrafoko eremuaren mugaketaren kartografia, eta c.4 paragrafoko kudeaketarako zonakatzearen kartografia. Dekretu honen eranskinean argitaratuta daude. Gainerako paragrafoak informatzekoak eta orientagarriak dira.

3. Kontserbazio-neurriak berrikusteko edo aldatzeko, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango du horretarako Agindua, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, kontserbazioa eta kudeaketa moldaerraza, etengabea eta malgua izan daitezen lan egitea da helburua. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

4. Ingurumenaren alorreko sailaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri kartografia –formatu digitalean, eta eremu horien mugaketa adierazita- eta

Aiako Harria, objeto del presente Decreto son las detalladas en la siguiente documentación:

a. Documento de diagnóstico
b. Documento de objetivos y medidas.
c. Cartografía:
    c.1. Delimitación
    c.2. Hábitats Naturales
    c.3. Zonificación

d. Apéndices:
    Apéndice 1. Fichas relativas al seguimiento del estado de conservación de los tipos de hábitats y las especies objeto de conservación.
    Apéndice 2. Documentación relativa al proceso de participación.

2. Son determinaciones de carácter normativo el apartado b. la cartografía de delimitación del espacio del apartado c.1. y la cartografía de zonificación para la gestión del c.3., que se publican como Anexo a este Decreto. El resto de apartados tienen carácter informativo y orientativo.

3. La revisión o modificación de las medidas de conservación se realizará mediante Orden de la Consejera o Consejero competente en medio ambiente cuando así lo aconseje la situación o los conocimientos técnico-científicos disponibles, y siempre atendiendo a lo dispuesto en los artículos 11 y 17 Directiva 92/43/CEE, en aras de avanzar hacia la conservación y gestión adaptativa, continua y flexible. En este procedimiendo deberá garantizarse una participación pública real y efectiva del público en los términos de la Ley 26/2007, se consultará a las administraciones y entidades afectadas y se recabará el informe de Naturzaintza.

4. En la sede electrónica del Departamento competente en medio ambiente estarán disponibles la cartografía en formato digital con la delimitación de estos espacios y todos

kontserbazio-neurriei buruzko agiri guztiak.

los documentos relativos a las medidas de conservación.

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Bakarra.- Kontserbazio Eremu Berezia eguneratzea**

1. Europako Batzordeak hartutako Erabakiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Kontserbazio Eremu Bereziaren handitzea.

2. Orduan, eta ez aurretik, aplikatuko dira dekretu honetan ezarritako kontserbazio-neurriak aplikatuko handitu nahi den eremuan.

3. Dekretu hau indarrean jartzen den unetik eta KEBa benetan handitzen den arte, lehen paragrafoan adierazitakoa betez, handitu nahi diren eremuetan prebentziozko erregimena aplikatuko da, hain zuzen, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluan ezarritakoa eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.2 eta 45.4 artikuluetan ezarritakoa.

**DISPOSICION TRANSITORIA**

**Única.- Actualización de la Zona Especial de Conservación.**

1. La ampliación de la Zonas Especial de Conservación será efectiva desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del anuncio de la correspondiente Decisión de la Comisión Europa.

2. Hasta ese momento, en el ámbito objeto de ampliación no serán de aplicación las medidas de conservación previstas en este Decreto.

3. Desde la entrada en vigor de este Decreto, y hasta la efectiva ampliación de la ZEC conforme se señala en el apartado primero, se aplicará en los ámbitos objeto de ampliación el régimen preventivo del artículo 6.2 y 6.3 de la Directiva 92/43/CEE y de los artículos 45.2 y 45.4 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

**AMAIERAKO XEDAPENAK**

**Lehena. Ahalmenak**

1.- Ingurumenaren alorreko sailburuari baimena ematen zaio Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar adina xedapen eman eta behar adina neurri ezartzeko.

2.- Ingurumenaren alorreko sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatuko du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikuluak ezarritakoa

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera. Autorizaciones**

1.- Se autoriza a la Consejera o al Consejero en materia de medio ambiente para dictar las disposiciones necesarias y adoptar las medidas precisas para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

2.- Se autoriza a la Consejera o al Consejero competente en materia de medio ambiente para que realice en nombre del Gobierno Vasco todos los trámites y comunicaciones legalmente precisos ante la Administración General del Estado y la Unión Europea junto con, en su caso, las estimaciones del coste económico preciso para la aplicación de las medidas, a los efectos previstos en el

betetze aldera.

**Bigarrena. Ministeriora helaraztea.**

Gobernu Idazkaritzak Ingurumen Ministeriora helaraziko du dekretu hau, Europako Batzordera bidal dezan.

**Hirugarrena.- Indarrean sartzea.**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

artículo 8 de la Directiva 92/43/CEE.

**Segunda. Traslado al Ministerio.**

Secretaría de Gobierno dará traslado de este Decreto al Ministerio de Medio Ambiente para su remisión a la Comisión Europea.

**Tercera.- Entrada en vigor.**

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.